

ESTATURIK GABEKO HERRIAK

Munduko Estatuena atlasa ezezik Munduko Herrien atlasa ere izan nahi du esku artean duzun liburu honek. Ukazio handiak dituen herri batek ezin baitio munduari ofizialtasunaren optikatik bakarrik begiratu.

Aski konplexua da herriaren kontzeptu etnologiko-soziologikoa. Batetik, herrien arteko desberdintasunak ugariak direlako, eta bestetik, izaeraz estatuak bezain dinamikoak direlako. Gisa honetako atlasari edota hiztegiei erreparatuta, *Herria* ulertzeko modua izugarri aldatzen da batetik bestera. Kontzeptu beraren azpian nabardurarik edukiko ez balute bezala topa genitzake herri primitiboak, herri etnikoak, herri-nazioak (beren identitate kultural eta kontzientziaren garapenerako mugimendu soziopolitikoak eratu dutenak) edota herri-estatuak (estatu nazionalak edo subiranotasun politiko-juridikoa duten herri-nazioak). Beste adibide bat jartzearren, estatu modernoetan hiritarren multzoak dira sarritan herriak, nahiz eta estatuaren barruan herri etniko edo nazional ezberdinak bizi: *peuple français*, *pueblo español*...

ESTATURIK GABEKO HERRIAK delako atal honetan hizkuntza, kultura eta lurralde propioak dituen komunitateaz, bereizgarrien eta ezaugarrien kontzientzia edo buru-jabetasuna duen herriaz mintzo gara. Lau irizpide nagusi horietan (hizkuntza, kultura, lurraldetasuna eta kontzientzia) oinarriturik, ia 1.000 herri eta etnia bildu dira orrialdeotan. Gaur egungoak eta biziak, denak. Hildakotzat edo desagertutzat jotzen diren Herri historikoak beste argitalpenen baterako utzi ditugu. Intuizioari ere kasu egin zaio lau irizpide horietakoren bat falta izan denean —ijitoez, esate baterako, lekua dute atal honetan, nahiz eta herri honek ez duen lurralde berezirik— edo zalantzazko datuen aurrean —kontzientzia neurtzea lan zaila da oso—.

Herri-etnia askoren nortasun-definizio arazoez gain, informazio segurua eskuratzeko trabak ez dira txikiak izan. Informaziorik fidagarriena eskaini ahal izatekotan, iturri asko kontsultatu ditugu, baina dimentsiootako lanetan, denok ere motz gelditzen garela aitortu behar. Bestalde, horien izenen transkripzio-arazoekin eta talde bakoitzaren izen ezberdinekin topo egin dugu; hemen, herri-etnia bakoitzak bere burua izendatzeko erabiltzen duen izena jaso da, eta erabiltzailearen erosotasunerako, izen baliokideei ere sarrera eman zaie (300 bat dira).

Azkenik, hiztegi itxurako atal honetan herri edo etniaren herritar-kopurua, historia, kultura, hizkuntza, erlijioa eta oraingo estatus politikoa dira nagusiki topatuko dituzun datuak.